

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoak MoSS 2010 3garren edizioa antolatu du

2009/10/13

Mondragon Unibertsitateak Erresuma Batuko *Institute of Physics (IoP)*-*Applied Mechanics Group* eta *American Society of Mechanical Engineers*-eko (*ASME*) *Technical Committee on Vibration and Sound* –ekin batera egitura lerdenen (*slender structures*) mekanikari buruzko sinposioaren 3. edizioa antolatu du, MoSS 2010. Sinposioa 2010eko uztailaren 21etik 23ra bitartean izango da Miramar Jauregian, Donostian.

Egitura lerdinak aipatzen ditugunean, kableak, uhalak, kateak eta barrak bezalako elementu malguak adierazi nahi ditugu. Elementu hauek ezinbestekoak dira hainbat aplikaziotan: garraio bertikaleko instalazioetako esekidura sistemetan, zubien euskarri diren egituretan, eraikuntza berezietako sabaien euskarri diren egituretan, kiroldegietan esaterako, elektrizitate transmisio lineetan...

Sinposioak mundu osoko adituak erakarriko ditu ondorengo arloetan: egitura mekanikoak, egituren osasunaren monitorizazioa, bibrazio eta kontrola... Horrela, dagoeneko sinposiora etorriko direla baieztatu dute *Georgia Institute of Technology*-ko (USA) Olivier Bauchau-k, *University of Glasgow*-ko (UK) Matthew Cartmell-ek, Extremadura-ko Unibertsitateko Ignacio Herrerak, *John Hopkins University*-ko (USA) Nick Jones-ek, *International Space Elevator Consortium*-eko (USA) Bryan E. Laubscher-ek eta *Delft University of Technology*-ko (Holanda) Andrei Metrikine-k.

